

# EXCERPTA

34. zenbakia

1989-martxoa

gaiak

orrialdeak

Greko-euskarazko gramatika konposaketa(Orixe)..... 661

Hesiodo-ren Teogonia..... 662-663

San Joan Krisostomo eta paganoen ohiturak eta pentsakera..... 664-665

Plinio Gaztea(eskutitzak)..... 666-669

De brevitate vitae(Seneka)..... 670-671

Definitiones, etymologiae, explicationes,  
et Sancti Augustini scriptis depromptae..... 672-673

Definitiones, etymologiae, explicationes,  
et Sancti Jeronimi epistolis depromptae..... 674-680

Grezia-ko Mitologia  
(barne orrietako eraskina)

---

Jon Gotzon Etxebarria  
GERNIKA

---

GREKO-EUSKARAZKO  
GRAMATIKA-KONPOSAKETA

Katá = kataponé0=lanpetu  
 katapontitz0=itsasperatu(euskarazkoa hitzez  
 hitz=kata-eis-pontitz0)

Eraginkorrak:

kathairé0=galduazi  
 kathéps0=egosarazi  
 kathitz0=eseriazi  
 katabibatz0=eratxi, jetxierazi  
 katabósk0=janarazi  
 katágo=beherarazi

Orixe, 1942  
 (jarraitzeko)

- 346 Τίντε δὲ θυγατέρων ἑρδὸν γένος, αἱ κατὰ γαῖαν  
ἀνδρας κουρίζουσι σὺν Ἀπόλλωνι ἄνακτι  
καὶ Ποταμοῖς, ταύτην δὲ Διὸς πάρα μοῖραν ἔχουσι,  
Πειθώ τ' Ἀδμήτη τε Ιάνθη τ' Ἁλέκτρη τε  
Δωρίς τε Πρυμνώ τε καὶ Οὐρανή θεοειδῆς  
Ἴππώ τε Κλυμένη τε Ῥόδειά τε Καλλιρόη τε  
Ζευξώ τε Κλυτή τε Ἰδυῖα τε Πασιθόη τε  
Πληγαύρη τε Γαλαξαύρη τ' ἐρατή τε Διώνη  
Μηλόβοσίς τε Θόη τε καὶ εὐειδῆς Πολυδώρη  
Κερκηῆς τε φυὴν ἐρατή Πλούτω τε βοῶπις  
Περσηῆς τ' Ιάνειρά τ' Ἀκάστη τε Εάνθη τε  
Πετραίη τ' ἐρόεσσα Μεγεσθώ τ' Εὐρώπη τε  
Μῆτις τ' Εὔρυνόμη τε Τελεστώ τε κροκόπεπλος  
Χρυσηῆς τ' Ἀσίη τε καὶ ἴμερόεσσα Καλυψώ  
Εὐδώρη τε Τύχη τε καὶ Ἀμφιρὼ Ωκυρόη τε  
καὶ Στύξ, ἡ δή σφεων προφερεστάτη ἐστὶν ἀπασέμιν.  
362 Αὗται δ' Ωκεανοῦ καὶ Τηθύος ἔξεγένοντο  
πρεσβύταται κούραι πολλαὶ γε μέν εἰσι καὶ ἄλλαι.  
Τρὶς γὰρ χλιαί εἰσι τανύσσυροι Ωκεανῖναι,  
αἱ δια πολυσπερέες γαῖαν καὶ βένθεα λίμνης  
πάντη ὅμῶς ἐφέπουσι, θεάων ἀγλαὰ τέκνα.  
Τόσσοι δ' αὖθ' ἔτεροι ποταμοὶ καναχηδὰ ρέοντες,  
υἱέες Ωκεανοῦ, τοὺς γείνατο πότνια Τηθύς·  
τῶν ὄνομ' ἀργαλέον πάντων βροτὸν ὀνέρ' ἐνισπεῖν,  
οἵ δὲ ἔκαστοι ἵσασιν, οἱ δὲ περιναιετώσιν.
- 371 Θεία δ' Ηέλιόν τε μέγαν λαμπράν τε Σελήνην·  
Ἡῶ δ', ἡ πάντεσσιν ἐπιγένοντοισι φαείνει  
ἀθανάτοις τε θεοῖσι, τοῖς οὐρανὸν εὐρὺν ἔχουσι,  
γείναθ' ὑποδμηθεῖσ' Ψερίονος ἐν φιλότητι.  
Κρίψ δ' Εὐρυβύη τέκεν ἐν φιλέτητι μιγεῖσα  
Ἀστραξίν τε μέγαν Ηάλλαντά τε δῖα θεάων  
Πέρσην δ', δις καὶ πᾶσι μετέπρεπε ἰδμοσύνησιν.

Alaben azkazi sakratua sortu zuen; alabok gizon gazteak hazten dituzte lur-gainean, Apolo nagusiarekin eta Ibai-ekin, Zeus-engandik eginkizun hau hartuta: Pitho, Admete, Yante, Elektra, Doris, Primno, Jainko-itxurako Urania, Hipo Klimene, Rodia, Kalirroe, Zeuxo, Klitia, Idiya, Pasitoe, Plexaura, Galaxaura, Dione maitagarria, Melobosis, Thoe, Polidora galanta, Kerkeis, izaera zatsegina; Pluto idi-begiduna, Perseis, Yaneira, Akaste, Jante, Petrea atsegina, Menesto, Europa, Metis, Eurinome, Telesto, estalki azafran kolo-reduna, Kriseis, Asia, Kalipso opagarria, Eudore, Tike, Anfiro, Okirroe eta Stix, denetarik bikainena. Hauexek dira Ozeano eta Tetis-engandik lehenbizi jaioriko alabak; badaude beste ainitz eta. Orkatila handidun hiru mila Ozeaniarr daude, jainkosen alaba ospetsu, han-hemenka sakabanaturik, lurrean eta laku sakonetan ere bizi direnak. Beste horren beste dira ibaiak, zaratatsu isurtzen direnak, Ozeanoren semeak, Tetis gurgarriak sorturikoak. Zaila izango litzai oke gizonari euron izenak esatea. Baino, beraien ur-bazterretan bizi direnek badakitzate izenok.

Thea-k, Hiperion-en maitasunari amore emanik, Eguzki handia sortu zuen, Ilargi distiratsua eta Goizaldea, lurtar guztientzat eta zero zabalaren jabe diren Jainko hilez korrentzat argi egiten duena. Euribia-k, jainkosen artean handi denak, Krio-rekin batu eta Astreo handia eta Palanta sortu zituen eta gizon guztietan adimenez gailentzen den Perse.

# S.Joan Krisostomo

Ο μὲν γὰρ ὅπισθεν ἔχει κόμην νέος  
 ὁν, καὶ τὴν φύσιν ἐκθηλύνων, καὶ τῷ βλέψατι, καὶ τῷ σγῆματι, καὶ τοῖς  
 λιματίοις, καὶ πᾶσιν ἀπλῶς, εἰς εἰκόνα κόρης ἀπαλῆς ἐκβῆνται φιλονεικεῖ.  
 Ἀλλος δέ τις γεγηρακώς ὑπενχντίας τούτῳ τὰς τρίχας ἔνυρῷ περιελόν,  
 καὶ ἔξωσμένος τὰς πλευράς, πρὸ τῶν τριγῶν ἐκτέμνων τὴν αἰλῶν, πρὸς τὸ  
 διαπίζεσθαι ἔτοιμος ἐστηκε, πάντα λέγειν καὶ ποιεῖν παρεπεινυστιένος. Άλι  
 δὲ γυναῖκες γυμνῇ τῇ κεφαλῇ ἀπηρυθρισματέναι πρὸς δῆκιν ἐπτήκαστοι τοι-  
 λεγόμεναι, τοσαύτην μελέτην ἀνυισχυντίας ποιούμεναι, καὶ πᾶσαν ἴτιμή-  
 τητα καὶ ἀσέλγειαν εἰς τὰς τῶν ἀκουσθντῶν ἐκχένονται ψυχάς. Καὶ μία  
 σπουδῇ, πᾶσαν ἐκ βέλφων ἀνασπάσαι τὴν σιωρροσύνην, καταίσγονται τὴν  
 φύσιν, ἐπιλῆσαι τοῦ πονηροῦ δάκμονος τὴν ἐπιθυμίαν. Καὶ γὰρ καὶ βή-  
 ματα αἰσχρὰ αὐτόθι, καὶ σχήματα καταγέλαστα, καὶ κουρὰ τοιχύτη, καὶ  
 βάδισις δμοία, καὶ στολή, καὶ φωνή, καὶ μελῶν διάκλασις, καὶ ὑγμηγάλη-  
 ἐκστροφαί, καὶ σύριγγες, καὶ κύλοι, καὶ δράματα, καὶ ὑποθέσεις, καὶ πάν-  
 τα ἀπλῶς τῆς ἐσχήτης ἀπελγείας ἀνέκεπτα.

Hara! Gaztea izanik ere, adats-ileak atzerantz, izaera e-  
 meturik, begirakunez, itxuraz, janzkeraz, eta abarrez, neska  
 samur baten plantak egiten ari da. Beste hori, berriz, agu-  
 re bat da, ilea labanaz mozturik, gerrikoa ipinita, ilea  
 baino arinago lotsa moztutakoa, maisailekoak hartzeko p-  
 rest, eta bururatzen zaion edozer esan eta egiteko gert-  
 u. Hor andrazkoak, buru-has, herriarekin lotsagabe mintza-  
 tzen, lizunkeriazko ihardunean, entzuleen animetara lotsa-  
 gabekeriak eta nabrmenkeriak isurtzen.....

Berbak zantarrak dira bertan, itxurak barregarriak, orraz-  
 kera berdin, ibilkera beste horrenbeste, soinekoia, ahotsa,  
 gorputz-bihurdurak, zeharkako begiradak, siringak, txirul-  
 ak, dramak eta gaiak. Dena lotsagabekiarik neurribakoe-  
 naz gainezka.

(S.Joan Krisostomo: "Mateo Sainduari buruzko Homiliak":  
 XXXVII, 6)

## Plinio Gaztea

C. PLINIUS PLINIO PATERNO SVO S.

Vt animi tui iudicio sic oculorum plurimum tribuo,  
non quia multum, ne tibi placeas, sed quia tantum quantum  
ego sapis; quamquam hoc quoque multum est.  
2 Omissis iocis credo decentes esse seruos, qui sunt  
empti mihi ex consilio tuo, superest ut frugi sint, quod  
de uenalibus melius auribus quam oculis iudicatur. Vale.

K.Plinio-k Plinio Paterno adiskideari  
osasuna.

Zure barru-eritziarekin, eta orobat zure begienarekin,  
benetan zorretan nago. Ez, noski, gustu handirik duzula-  
ko, harro ez zaitezen, nirearen besteko gustua duzulako  
baizik. Eta hau, egia esan, bada gauza handia. Txantxetan  
ibili gabe, jopuak, zure aholkuz erosia k ditut, itxura o  
nekoak dira. Egokiak ere izango diren ikusi egin behar.  
Salgai daudenean hau begiz baino hobeto belarriz iga-  
rri ohi da. Agur.

-----  
OHARRAK:

Esklabo batzu erozi dituela eta idazten dio Plinio-k  
lagunari. Eta pozik dago, erozi berri dituen jopuak gor-  
putzez eta gogoz taju onekoak direlako.

Azokan salgai zeudenean, jopuek idazki batetan nondik  
ekarriak ziren eta nolakoak ziren erakusten zuten. E-  
rosterakoan, baina, erostunak begiz beren gorputz-itxu-  
ra bakarrik onets zezakeen. Osterantzeko alderdi onak  
ikusteko, aldiz, berarekin hizketan jardun behar.

C. PLINIUS CORNELIO TITIANO SVO S.

Est adhuc curae hominibus fides et officium, sunt qui defunctorum quoque amicos agant. Titinius Capito ab imperatore nostro impetravit, ut sibi liceret statuam L. Silani in foro ponere. 2 Pulchrum et magna laude dignum amicitia principis in hoc uti, quantumque gratia ualeas aliorum honoribus experiri. Est omnino C<sup>a</sup>pitolini in usu claros uiros colere. 3 Mirum est qua religione, quo studio imagines Brutorum, Cassiorum, Cato<sup>um</sup> domi, ubi potest, habeat. Idem clarissimi cuiusque uitam egregiis carminibus exornat. 4 Scias ipsum plurimis uirtutibus abundare qui alienas sic amat. Redditus est L. Silano debitus honor, cuius immortalitati Capito prospexit pariter et suae, neque enim magis decorum et insigne est statuam in foro populi Romani habere quam ponere. Vale.

K.Plinio-k Kornelio Titiano  
adiskideari osasuna.

Gizonei oraindino axola zaie leialtasuna eta eginbearra; hildakoekin adiskide gisa jokatzen dutenak ere badaude. Titinio Kapito-k gure Enperadoreari L.Silano-ren estatua enparantzan ipintzeko baimena eskatu dio. Gauza ederra eta guztiz aipagarria agintariaren adiskidetasunaz hortarako baliatzea, besteren ohoretan norberak duen eragipena erabiltzea. Aitortu beharra dago, Kapiro-k gizon argiak goraltzeko ohitura dizu. Harritzekoada nolako jaieraz eta ahaleginez dituen etxean, eta ahal duen lekuan, Bruto, Kasio eta Katon-en irudiak. Era beran, gizon argien bizitza neuritz ederretan goresten daki. Egia, ainitz birtutetan gailentzen da inorenak horrela maite dituena. Zor zitzaison ohorea eman zaio L.Silano-ri; beronen eta bere hilezkortasunaz arduratu da: Ez bait da ohore eta ospe handiagoa erromatarren enparantzan estatua bat edukitzea ipintzea baino. Agur.

-----  
Bruto-ren arreba zen Kasio-ren emaztearen hiletetan ez bait zen agertu errepublikazale handi horien irudirik.

L. ANNAEI SENECAE

# DE BREVITATE VITAE

AD PAULINUM

I. Maior pars mortalium, Pauline, de naturae malignitate conqueritur, quod in exiguum aevi gignimur, quod haec tam velociter, tam rapide dat nobis temporis spatia decurrent, adeo ut, exceptis admodum paucis, ceteros in ipso vitae apparatu vita destituat. Nec huic publico, ut opinantur, malo turba tantum et imprudens vulgus ingemuit; clarorum quoque virorum hie affectus querellas evocavit. Inde illa maximi medicorum exclamatio est: "vitam brevem esse, longam artem"; inde Aristoteli cum rerum natura exigenti, minime conveniens sapienti viro, lis: "aetatis illam animalibus tantum indulsisse ut quina aut dena saecula educerent, homini in tam multa ac magna genito tanto citeriorem terminum stare". Non exiguum temporis habemus, sed multum perdidimus. Satis longa vita et in maximarum rerum consummationem large data est, si tota bene collocaretur; sed ubi per luxum ac neglegentiam diffliuit, ubi nulli bona rei impenditur, ultima demum necessitate cogente, quam ira non intelleximus transisse sentimus. Ita est: non accipimus brevem vitam, sed facimus, nec inopes eius sed prodigi sumus. Sicut ampliae et regiae opes, ubi ad malum dominum pervenerunt, momento dissipantur, at quamvis modicae, si bono custodi traditae sunt, usu erescunt: ita actas nostra bene disponenti multum patet.

KIRKE

Kirke

Odisea-n eta Argonauten leyendetan diharduen andere aztia. Eguzkiaren eta Perseo-ren alaba. Ozeanoren alaba,edo batzuren eritziz Hekate-rena. Eetes, Kolkide-ko erregearen urrezko larru-artilearen zaindariaren arreba da, eta Minos-en emaztea den Pasifae-ren ahizpa. Ea uhartean bizi da. Odisearen leyendan uharte hau Italian ageri da; gaurko Kirkeo mendia izeneko penintsula. Ulises-ek lestrigoniarren lurrean abenturak igaro ondoren Ea uhartera jotzen du. Grekoak heltzen diren jau regiko ugazabandra Kirke bera da. Bazkaritara gomittzen ditu itsastarrak eta jan-edan ondoren Kirke-k bazkaltiarra makilatxo batez jotzen ditu eta askotariko abere eta animalia bihurtzen: zerria, lehoia, zakurra, nork bere zuen izaerari zegokion moduan. Gero ikuiluetara daramatza. Han doa Ulises, Eurilok abisata, lagunak askatzera. Halako batetan Hermes agertzen zaio, Kirke-en sorginkeria nola baztertu azaltzeko. Kirke-k emaniko edari-nahasteetan moly izeneko landarea bota eta ez duke ezeren beldurrik. Eta moly ere eman egiten dio. Badoa Ulises eta edan egiten du, moly hori nahasiz. Kirke-k orduan makilatxoaz jo eta Ulises-ek zirkinik ere ez; ezpata atera eta hura hiltzera doa. Kirke-k, honetan, hitz ematen dio ez diela ez berari ez beraren lagunei kalterik egingo. Itsastarrek lehengo itxura hartu eta hilabetea egiten du Ulises-ek harenean.

Bitarte honetan Telegono semea izan zuen aztiarekin. Beste seme batzu ere izan omen zituen Kirke-k, batzuren esanetan.

Piko errege latinoarekin eta Jupiter-ekin ere ibili omen zen eta Fauno jainkoaz erditu.

1011 Κίρκη δ', Ἡελίου θυγάτηρ Υπεριονός,  
γείνατ' Ὀδυσσῆος ταλασίφρονος ἐν φιλότητι  
Ἄγριον ἦδε Λατίνον ἀμύμονά τε πρατερόν τε·  
[Τηγλέγονον δ' ἄρ' ἔτικτε διὰ χρυσέγην Ἀφροδίτην.]  
Οἱ δ' ἦτοι μίδλα τῆλε μυχῷ νήσων ἵεράων  
πᾶσιν Τυρσηνοῖσιν ἀγαλλεῖτοισι ἀνασσοῖς.

956 Ἡελίῳ δ' ἀκάμαντι τέκεν κλυτὸς Ὁκεανίη  
Περσηγῆς Κίρκην τε καὶ Αἰγάτην βασιλῆα.  
Αἴγατης δ' οὐδὲ φαεσμέρότου Ἡελίοιο  
κούργην Ὁκεανοῖο τελίζεντος ποταμοῖο  
γῆμε θεῶν βουλῆσι Ίδειαν καλλιπάρηγον.  
Ἡ δέ νύ οἱ Μήδειαν ἐῦσφυρον ἐν φιλότητι  
γείναθ' ὑπεδμηθεῖσα διὰ χρυσέγην Ἀφροδίτην.

(Hesiodo:TEOGONIA)

299 «Hermes.—Ai, doakabe! Nera zoaz muiño oneitan zear, bakarrik eta emengo barririk ez dakizula? Zure adiskideak Kirke'ren jauregian ertsia izan dira, txarriak lez, eta gogor be gogor eratutako txarritokietan aurkitzen dira. Areik askatzera zatoz. Ia, gaitz guztitik gorde nai zaitut, bai gaizkatu gura zaitut: ar eizu osabide bikain au, zeure burutik egun baltza baster-azoko dautzuna, ta zoaz Kirke'ren egoitzera; neuk edestuko dautzudaz onen asmo zitalak zearo be zearo. Egosi bat atonduko dautzu, janariari droga batzuk egiñaz; baiña, guzti orregaz be ez dau jaritsiko zu lilluratzea, artuko dozun osabide bikaiñak galazoko dautzu-ta. Oraintxe esango dautzut gero jazo-ko dana. Kirke'k bere zaaro luzeaz jo zagizanean, eskuratu izta ondoan daroazun ezpata zorrotza ta eraso egiozu bera iltea nai ba'zendu lez. Orduan, bildur izango dautzu, ta beragaz etzutera komit egingo: zuk ez ukatu jainkosaren oia erdikide egitea, zure adiskideak askatu ta zu be onbera artu zagizan; baiña jainko zoriontsuen ziñ-eskintza eragiozu aurretik, au da, zure aurka ez dauala beste gaitz kaltegaririk asmatuko: zeure izkilluak erantzi dagizuzanean, bear bada, zeure indar-kemenik bage itxi ez zagizan.

321 «Orrela esanaz, Argifonte'k osabidea emon eustan, zelako indarra eukon esan eustan landara bat lurretik atareaz. Baltza eukon sustraia ta zuria zan esnea lakoxea aren lorea, jainkoak moly deritxoena, eta ilkor bati oso gatx yako lurretik ataratea; jainkotasunak, barriz, oro al dabe.

326 «Hermes Olinpu nasaira joan zan izaro basatsu zear, eta nik Kirke'ren egonlekura bide artu neban, neure biotzean amarru asko iraulka. Kopet ederdun jainkosaren jauregira elduz, ate surrean lotu ta deadarka asi nintzan; jainkotasunak aditu eban nire abotsa ta, bat-baten jagirik, ate didzitsua edegi ta barrura dei egin eustan, eta ni, oso naigabetu, bere atzeik joan nintzan. Barruan nintzaneko, zidarrezko untzezko ezarleku baten jarri-azo ninduan, ots, oinenetzat lenka bat eukan aulkia eder, landuan ain zuzen; eta urezko txolean gertau eustan naastura bat, edan nengian, bertan olako droga bat ixuriaz eta bere buruan asmo nabarmenak erabiltzalarik. Baiña ak emon eta nik, lillurazi barik, edan baizen laster, zaaroaz ikutu nindun itzok esaten eustazala:

340 «Kirke.—Oa orain txarritokira ta etzun adi eure lagunakaz.

342 «Olan mintzo zan. Atera neban orduan zorrotik iztar ondoan neroian ezpara zorrotza ta Kirke'ri ekin neutson, bera ilteko asmoz bezela. Ak, oiu zolian, lurrera jausi ta belaunetik besarkaturik, itz ariñok zuzendu eustazan zizpuruka:

347 Kirke.—Nor zaitut, eta nungo errialdetik zatoz? Nun dagoz zure uria ta zure gurasoak? Zur ta lur gelditu naz zuk droga oneik edan eta etzareala lilluratu ikustean; beste iñok ez dau orrei jarkitzeko kemenik izan, artu-ala bait ziran euren agiñen birara igaro. Zure barruak arnas-emoille ezigatxa dau. Zu zara bear bada arako Odis, berein asmoduna, urrezko zaroa daroan Argifonte'k niri sarritan aitauta, Troia'tik onunzkoan oial ontzi baltzean etorriko ziñala esanaz. Baiña, tira, zorratu ezpatea ta goazan ogera, gure artean, ogez ta maitasunez alkarturik, uste ona sortu ta azi dedin.

358 «Onela mintzatu zan, eta nik erantzun:

359 «Odis.—O Kirke! Zelan eskatu dagistazu onbera izan nakizula, ementxe jauregi ontan, txarri biurtu ba'zenduzan nire lagunak eta orain nire aurka, ni atxillo nozula, azpikeriak asmatu ta zeure etzanguan sarturik zeure ogera igoteko agindu ba'dagistazu, neure izkilluak itxiaz bat, indar-kemen barik laga nagizun? Nik ez neuke zure ogera igo naiko zu, Jainkosa, nire aurka ez dozula beste gaitz kaltekorrak asmatuko, aurretik ziñ-eskintza egiten azartuko ez ba'ziña.

367 «Orrela esan neutson. Bertatik egin eban ziña, nik eskatu bezela. Eta ziñeskintza burutu ebanekoxe, igo nintzan Kirke'ren oge galant-aberatsera.

(Homero-ren ODISEA; Aita Santi Onaindia-ren itzulpena.-Bilbo, 1985)

## BIZITZA DEN LABURRAZ

Paulino-ri

I.-Gizonik gehienak, Paulin, naturaren makurkeriaz kexu dira; aldi laburrerako jaioak garelako, eman zaigun aldiaren tarteak hain arin, hain laster doazelako; hainbeste, ezen, banaka batzu izan ezik, enparauak bizitzak berak ezabatzen bait ditu, oraindik bizitzara zabalzear daudela. Eta gaitz publiko, diotenez, honi giza aldrak eta herri xehe-burugitzikoak soilik ez diote egiten negar; hontaz gizon argien bihotzak ere zinkurinka dituzu. Hortik sendagileen harako oihu garrantzi tsu hora: "bizitza labur, eginkizuna luze". Hortik Aristotel-en arrengura, gauzen izaera diharduela, gizon jakin suari bat ere egoki ez zaiona: "Adinean izaera hain emankor izan da animaliekin, bost edo hamar mendetaraino hedatzen da batzutan; gizonak, berriz, hainbeste eta hain gauza handietarako jaioa izanik, azkoz arinago du azkena". Aldi laburraren jabe ez, aldi luzearen galtzaile gara. Bizitza aski luzea eman zaigu, eta gauza handiak burutzeko nahikoa luze, dena egokiro erabiliz gero. Baina luxuan eta axolagabekerian joan doanean, ezein gauza onuratsutan eman gabe, azkenean azken gerta beharrak estuturik, joan doala ohartu ez eta igaroa dela sentitzen dugu. Halaxe da: bizitza laburra hartu ez, gerok egiten dugu labur; ez gara bizitzaz urri, emanzale baizik. Ondasun handiak eta errege batenak jabe txarrarengana helduz gero, behingoan galtzen dira; handiegiaik barik, ordea, jagole onari eman eta erabili ahala handiagotu egiten dira: horrelaxe, gure bizitzaldia ongi erabiltzen dakienari ondo luzea gertatzen zaio. (iarraitzeko)

DEFINITIONES, ETYMOLOGIAE, EXPLICATIONES, E SANCTI AUGUSTINI SCRIPTIS DEPROMPTAE.

- 182 GERRIKEKOAK :** "...aliamque interpretationem habere commemo<sup>ra</sup>s περίζωματα ... Ubi miror istum interpretem quem legisti, si Pelagianus non fuit, ex eo quod graecus ait περίζωματα vestimenta potuisse transferre". ("Contra Iulianum libri sex"; lib.V, cap.II, 5)  
 "Quis enim doctus vel indoctus ignoret, quas perizoma<sup>t</sup>a contegant corporis partes?"  
 (idem, ibidem, 7)

Περίζωματα beste era batera itzuli litekeela diozu. Harritu egiten naiz, zuk irakurri duzun itzultzai-leak, Pelagiarrar ez bada, grekozko περίζωματα jantziazak itzuli badu.  
 Eta nor da, jakituna edo ez, perizomata horiek gorputzeako zeintzu atal estaltzen dituzten ez dakienik?.

- 183 ATSEGINA :** "Placet tibi secta Dinomachi, honestatem voluptatemque coniungens"; quod philosophi quoque huius mundi qui honestiores videbantur, Scyllaeum bonum esse dixerunt, ex humana scilicet natura belluinaque compactum".  
 ("Contra Iulianum Libri sex"; cap.XVI, 50)

Dinomako-ren sekta, zintzotasuna eta atsegina bat jo-tzen diuena, gogokoa duzu. Artezago ziruditen mundu hontako philosophoek Szileo deitu zioten honi, giza eta abere-izaeraz nahasia.

- 184 METONIMIA :** "Quia et illi philosophi locutione tropica mihi videntur vitiosam partem animi appellasse libidinem, in qua parte est vitium quod vocatur libido sicut appellatur domus pro eis qui sunt in domo". ("Contra Iulianum Libri sex"; lib.VI, cap.XVIII, 53)

Esaera tropiko batez baliatu ziren, nire ustez, philosophoak irritsa animako atal makur bat zela esan zutenean; hau da, irritsa izeneko makurra atal hortan dago elia. Halaxe esan ohi da etxea, etxe-barrukoak aipatzeko

- 185 MUSIKAREN NEURRIA :** "...quod in expositione Consiliorum Tullius posuit: "Quia cum violenti adolescentes tibiarum etiam canto, ut fit, instincti, mulieris pudicæ fores frangerent; admonuisse tibicinam, ut spondeum caneret, Pythagoras dicitur: quod cum illa fecisset, tarditate modorum et gravitate cantus illorum furentem petulantiam resedisse".

("Contra Iulianum Libri sex"; lib.V, cap.V, 22)

Tuliok bere Ahokuetan dakarrena: "Egun batez, gazte batzu, txirula-soinu gogorrez lagundurik, eta bultzaturik gertatzen ohi denez, emakume garbi baten etxeko ate a-purtu beharrean hasi ziren. Orduan, esaten da Pitagoras ek agindu ziola jotzaile bati, spondeo-doinua jotzeko. Halaxe egin omen zuen; eta konpas astitsuagatik eta do-inu larriagatik haien harropuzkeriaren haserrea ibitu egin zen.

-----  
 "CONSILIA", Kikero-ren galduztako idazlana.

DEFINITIONES, ETYMOLIGIAE, EXPLICATIONES, E SANCTI  
JERONIMI EPISTOLIS DEPROMPTAE.

29 **HOSANNA** : "In centesimo septimo decimo psalmo, ubi nos legimus: "O Domine, salvum me fac, o Domine, bene prospera; benedictus qui venit in nomine Domini", in hebraeo legitur: "anna Adonai, osianna, anna adonai, asliana; baruch basem adonai". Quod Aquila, Symachus, Theodotion et quinta editio, ne quid in latino mutare videamus, ita exprimunt: ὁ δῆ κύριε, σῶσον δῆ, ὁ δῆ κύριε, εὐδωσον δῆ εὐλογητός ὁ ἐρχόμενος ἐν ὀνόματι κυρίου. Sola sexta editio cum interpretibus septuaginta ita congruit ut, ubi ceteri posuerunt ὁ δῆ, illa scripsit ὁ. Et quia "osianna", "salvifica" sive "salvum fac" exprimatur, omnium interpretatione signatum est; nunc illud in cura est, quid sine adiectione salvandi solus "anna" sermo significare. Sciendumque, quia in hoc loco ter dicatur "anna"; et primum quidem ac secundum eisdem litteris scribitur, aleph, nun, he, tertium vero heth, nun, he. Symmachus igitur, qui in centesimo septimo decimo psalmo cum omnium interpretatione consenserat, ut nobis manifestorem tribueret intellectum, in centesimo quinto decimo psalmo, ubi dicitur: "o Domine, libera animam meam", ita interpretatum est: "obsecro, Domine, libera animam meam". Ubi autem Septuaginta ὁ et ille "obsecro" transtulerunt, Aquila et ceteris editionibus ὁ δῆ interpretantibus, in hebraeo scribitur "anna", verum ita ut in principio aleph habeat, non heth. Ex quo animadvertisimus, si ex aleph scribatur "anna", significari "obsecro", si au-

tem ex heth, esse coniunctionem sive interiectionem, quae apud Graecos ponitur μῆ et est in σῶσον, cuius interpretationem Latinus sermo non exprimit".  
("Ad Damasum" 20,3)

117. salmoan, guk hau irakurtzen duguna: "Ene Jauna, salba nazazu, ene Jauna, eman ongi izatea, bedeinkatua Jau-naren izenean datorrena", hebreoz honetara dakar: "Anna adonai, osianna, anna adonai, aslianna; baruch abba bass-em adonai". Eta Akilak, Symmakok, Theodotion-ek eta bost garren argitalpenak (latinezkoa ezertan aldatzten dugula irudi ez egiteko) honelaxe dakarte: "ὁ δῆ κύριε, σῶσον δῆ, ὁ δῆ κύριε, εὐδωσον δῆ εὐλογητός ὁ ἐρχομενος ἐν ὀνόματι κυρίου". Seigarren argitalpena bakarrik dator bat LXX-rekin, besteek ὁ δῆ ipini zuten lekuaren berak ὁ dakar idatzirik. Eta "osianna" hori, guk ezjakinez "osanna" bihurtu duguna, salba da edo salbu egin; hori ikusten da argi eta garbi denen itzulpean. Orain, berriz, arazoa da ea zer esan nahi duen "anna"-k, soilik, salbaturen gehigarririk gabe. Idaztune honetan, jakin beharra dago, hiru aldiz dator "anna". Lehenengoa eta bigarrena hizki berdinekin idazten da: aleph, nun, he eta hirugarrena: heth, nun, he. Symmakok, aldiz, 117. salmoan denen itzulpenarekin bat datorrenak, 115. ean, esangura guri argiago ipintzeko, "ene Jauna, askatu ene anima" dioen lekuaren, honela itzuli zuen: "askatu, Jauna, eskatzen dizut, ene anima". Eta LXX-ek ὁ eta hark "eskatzendizut" itzuli zutena, Akilak eta beste argitalpenek ὁ δῆ itzulitakoa, hebreoz "anna" idatzirik dago, baina hasieran aleph eta ez heth dutela. Hortik ateratzen dugu "anna" aleph-ez idazten bada, "eskatzendizut" esan nahi duela, eta heth-ez egin ezkero, lokarri-hitza edo as-

peren hitza dela. Hori grekoz μή da eta σῶσον-en agertzen da. Esangura hori latin hizkuntzan ez da ematen.

## Alefato.

Figura	Nombres	Trascipción y pronunciación	Valor numérico
א, dilatada אָ	'Alef אֵלֶף	' (espíritu suave)	1, אַ = 1000
בּ	Beth בְּתֵה	bh; בּ = b (34, b)	2, בּ = 2000
גּ	G(u)imel גְּיִמֵּל	gh; גּ = g (34, b)	3, גּ = 3000
דּ	Dáleth דְּלֵת	dh; דּ = d (34, b)	4, דּ = 4000
הּ, dilatada הָ	He' הֵה	h (h aspirada)	5
וּ	Wáu (Waw) וָוּ	w ingl., v	6
זּ	Záyin זְיִין	z	7
חּ	Jeth חְיֵה	j	8
טּ	Teth טְהֵרָה	t (t enfática y fuerte)	9
יּ	Yodh יְהֹוָה	y	10
כּ, final כּ	Kaf קְאַף	kh (χ); כּ = k (34, b)	20, f. כּ = 500
לּ, dilatada לָ	Lámedh לְאַםְדָּה	l	30
מּ, fin. מּ, d. מּ	Mem מְאַםְדָּה	m	40, f. מּ = 600
נּ, final נּ	Nun נְאַנְדָּה	n	50, f. נּ = 700
סּ	Sámekh סְמֵךְ	s	60
עּ	Áyin עְיִין	' (espíritu fuerte)	70
פּ, final פּ	Pe' פְּאַפְּה	p (f) (φ); פּ = p (34, b)	80, f. פּ = 800
צּ, final צּ	Sádhe צְדֵה	s (ts, ds, s enfática)	90, f. צּ = 900
קּ	Kof קְוֻףָה	q (k gutural)	100
רּ	Reš רְשֵׁה	r	200
שּ	Šin שְׁנֵה	š	300
שּׁ	Šin שְׁנֵה	š (sch alem., sh ingl., ch franc.)	
תּ, dilatada תָּ	Táu (Taw) תְּאַוְּה	th (θ); תּ = t (34, b)	400

30 [ASPEREN-HITZAK] : "Ad summam, sicuti nos in lingua latina, habemus et interiectiones quasdam, ut in exultando dicamus "ua" et in admirando "papae" et in dolendo "he u" et, quando silentium volumus imperare, strictis dentibus spiritum coartamus et cogimus in sonandum "st", ita et hebraei inter reliquias proprietates linguae suae habent interiectionem ut, quando volunt Dominum deprecari, ponant verbum potentis affectu et dicant "anna Domine", quod Septuaginta dixerunt "o Domine". "Osi" ergo "salvifica" interpretatur, "anna" interiectio deprecantis est. Si ex his duobus velis compositum verbum facere, dices "osianna" sive, ut nos loquimur, "osanna" media vocali littera elisa, sicuti facere solemus in versibus quando "mene incepto desistere victimam" scandimus "men incepto". Aleph quippe, littera prima verbi sequentis, extremam prioris verbi inveniens exclusit. Quapropter, ut ad quaetionis originem revertamur, ubi nos legimus in Latino: "o Domine, salvum fac, o Domine, bene conplate; benedictus qui venit in nomine Domini", iuxta hebraeum sensum legere possumus: "obsecro, Domine, Salvum fac; obsecro, Domine, prosperare, obsecro; benedictus qui venit in nomine Domini". "Salvum", autem "fac" dicitur, ut subaudiamus "populum tuum Israhel" sive generaliter "mundum". Denique Matheus qui evangelium hebraeo sermone conscripsit ita posuit: osianna barrama, id est "osanna in excelsis", quod salvatore nascente salus in caelum usque, id est etiam ad excelsa, pervenerit pace facta non s lum in terra sed et in caelo".

(Ad Damasum, 20, 5)

Hitz batez,guk latinez asperen hitz batzu ditugunez,e-saterako,pozean "ua" diogunean,harriduran "papae" eta oinazean "heu",eta isiltzeko agintzen dugunean,haginak estuturik,arnasa estutu egiten dugu eta "st" hotsa ate ratzen dugu.Era berean hebreoek beren hizkuntzaren bezitasunen artean asperen hitza badute eta Jauna otoi zu nahi dutenean,eskatzenduenaren bihotzondoa adieraz teko hitza ipintzen dute,esanez:"anna Domine",Septuagintek "o Domine" dakartena."osi",beraz,"salba" da;"anna" otoilariaren asperen hitza.Hitz biotatik elkartua atera nahi izanez gero,"osianna" esanen duzu,edo guk e saten dugun moduan "osanna",barruko bokalea isildurik.Holaxe egiten dugu harako bertsoetan:"Mene incepto de sistere victimam","men incepto" neurten dugunean.Aleph, hurrengo berbaren lehenengo hizkiak,aurrekoaren azkenengoarekin jotzean,galdu eraztendu.Hortaz,gure arira i tzuli eta Latinezkoan hauxe irakurtzean:"O Jauna,salba nazazu;o Jauna,erruki nitaz,bihotzbera;bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena",hebreoaren zentzunaren arauera hola irakur genezake:"arren,Jauna,salba gaitzazu;arren,Jauna,eman ongi izatea,arren,bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena". "Salba" hortan "Israelgo zeure Herria" ulertu behar dugu,edo orokorki "mundua".Azkenik, Mateo-k,ebangelioa hebreoz idatzi bait zuen,honela ipini zuen:"osianna barramä",hau da,"osanna goienetan",salbatailea jaiotzean osasuna zeruraino heldu bait zen,hau da,goienetara ere bai,bakea lurrean ez ezik zeruan ere bai egin zen eta.

**31 ESKUARTEAK :**"Qui divisit eis substantiam".Significantius in Graeco legitur διεῖλεν αὐτοὶς τὸν βίον,id est,dedit liberum arbitrium,dedit mentis propriae voluntatem...".

("Ad Damasum",21,6)

"Eta hark ondasunak banandu zizkien".Grekoz zehatzago, διεῖλεν αὐτοὶς τὸν βίον ,hau da,biziera,aukera-ahalmena,beren gogo-nahiak.

**32 NAID :**"Et Cain egressus a facie Dei habitavit in terra Naid,quod interpretatur "fluctuatio".

("Ad Damasum",21,8)

Eta Kain Jaungoikoaren aurpegitik urrunduz Naid lurraldean bizi izan zen;Naid hori "gorabehera" itzultzen da

**33 BABEL :**"Et vocatus est locus ille Babel,id est,"confusio".

("Ad Damasum",21,8)

Eta leku hari Babel zeritzan,hau da "nahaspila".

**34 DEABRUA :**"...id est diabolo,rectori tenebrarum istarum,quem nunc inimicum hominem,nunc iudicem iniquitatis,nunc draconem,nunc satan,nunc malleum,nunc perdicem nunc Belial,nunc rugientem leonem,nunc Leviathan,nunc tenninim et multis aliis vocabulis scriptura cognominat".

("Ad Damasum",21,11)

Hau da, deabrua, hemengo ilunpeen zuzendaria, Bibliak giz  
zon etsaia,edo gaiztakeriaren epailea,edo dragoia,e-  
do satan,edo mailua,eperra,edo Belial deitzen diona,e-  
dolehoi orroatsua,edo Leviathan,edo tenninim edo beste  
hainbeste izen ematen diona.

— DE PERSECUTIONE VASCONUM —

I

Omnibus historiae studiosis notum est per pauca vascones de se ipsis scripsisse. Ut ait philosopha Unamuno, Homerus illis defuit, qui eorum res gestas narraret. Quapropter saepe difficilis fit ut eorum historia satis explicetur.

Recentibus autem temporibus multi operam dedere ut hodierna documenta in lucem proferantur; praeципue ea quae ad bellum civile Hispanorum pertinent; quaeque post hoc bellum civile contigere in lucem prodere multi adhuc conantur.

Ego vero iuvenis et pauper cum sim, ne queo multa vobis vere historiae utilia referre. Attamen, propter causam vasconum multa passus sum. Quae omnia hisce libellis EXCERPTA nuncupatis narrare intendam. Perque ea quae mihi nuper contigerunt, quippe quae non propter me sed propter causam vasconum ita facta sunt, meam vitam ab omnibus calumniis et opprobriis vindicare volo, dum EUSKAL HERRIA patriae vasconum iustitiam quaero, per Domini misericordiam.

Etenim bene Ille scit me suam gloriam et laudem tantummodo quaerere. Qua de causa, si prius tacui, XX eximii sacerdotis consilio edoctus, hodie omnia patefacere mallo.

Da mihi, Domine, tuam lucem ex alto ut per omnia ea quae hic et nunc conscripsero, soli tuo nomini honor et decus tribuatur.

In Gernika, in die Resurrectionis Domini, patriae vasconum diem celebrantes, anno MCMLXXXIX, ut omnes in veram aeternamque Patriam, te Duce, perducamur tuaque luce fruamur, fac nos per huius mundi patriam caelestem illam Hierusalem semper petere, ne dum per terrena pergimus caelestium obliviscamur, quia etsi durus est sermo hidem solus verus: "Si enim consurrexistis cum Christo quae sursum quaerite, ubi Christus est in dextera Dei sedens: quae sursum sunt sapite, non quae super terram". (Paul. Ad Col. 3,1-2)